

**2018ko ABENDUAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **13 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko abenduaren 27an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
<b>Ez da etorri</b>	Naiara Carvajal Larrañaga and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### **1.- 2018ko AZAROAREN 29ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:**

– 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 19ra.

Segidan, Alkatetzak 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 19ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:**

– 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 17ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko azaroaren 26tik abenduaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **4.- ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2022 PLANA. HASIERAKO ONESPENA**

2018EEEE0008 espedientea

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio etan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. artikulua xedatzen du, prozesu hori hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar duela plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean.

Zarauzko Udalak indarrean izan du V. plangintzaldiko 2013-2017 epealdirako Erabilera Plana, 2013ko abenduaren 18an Osoko Bilkuran onartua.

2018an VI. plangintzaldia hasi da, eta 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du, beraz, Udalak euskararen erabilera plan berria prestatu du.

Zarauzko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2018-2022 Planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

VI. plangintzaldian Udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehazteko, ezinbestekoa da egungo egoera zein den jakitea; hau da, Udalaren hizkuntza erabileraren diagnostikoa egitea.

Diagnostikoa egiteko, Bikain deialdiaren autodiagnostikoan eta Siadecoren diagnostiko ereduan oinarritu gara. Diagnostikoa osatzeko, neurketa berezi batzuk ere egin ditugu erregistroan eta itzulpen zerbitzuan.

Udalaren egoera ezagutzeko, elkarrizketak egin dizkiegu departamentuburuei eta estrategikoak diren beste hainbat udal langileri, eta haiek sortutako dokumentazioa ere behatu dugu. Hogei langile elkarrizketatu ditugu, eta 60 langilek erantzundako galdeketak ere baliatu ditugu.

Udalaren egoera horretatik abiatuta, plangintzaldi amaierarako lortu nahi diren helburu estrategikoak eta aurrerantzean Udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehaztu ditugu Hizketa aplikazioaren bidez. Horrekin bat, erabilera planaren barruan sartzen diren udal langileak zein diren zehaztu dugu.

Planaren jarraipena egiteko sortuko den Jarraipen Batzordearen izaera ere zehaztu da.

Erabilera plana jendaurrean jarri dugu baina ez da ekarpenik jaso.

Bestalde, Planak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren oneritzia jaso du.

Herritarren Informazio Batzordeak Euskara Departamentuak egindako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2022 PLANARI, Herritarren informazio-batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

**Bigarrena.-** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari onarpen honen berri ematea.

**Hirugarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Laugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2018-2022 PLANA behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

## **5.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA 2018-2022**

2018EEEE0007 espedientea

Zarauzko Udalak EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) 2018-2022 onartu behar du.

2014ko abenduaren 17an onartu zuen "Zarauzko Udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017". Planaren indarraldia amaitu da eta euskararen erabileraren normalizaziorako VI. plangintzaldian gaude: 2018-2022 plangintzaldia, hain zuzen ere.

Zarauzko Udalak, beraz, bost urteetarako planak (2018-2022) onartu behar ditu, bai Udal barruko Euskararen Erabilera Plana, bai Udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ere.

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN bitartez, Zarauzko Udalak, datozen urteotan, euskararen normalkuntzaren bidean ezarriko dituen lehentasunak, helburuak eta egitasmoak zehaztuko ditu.

Plan honek hiru atal nagusi izango ditu:

### **Diagnostikoa, ondorio nagusiak eta lehentasunak, eta Plan Estrategikoa bera.**

– **Diagnostikoa** egiteko orduan 2011ko V. Mapa Soziolinguistikoa eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa izan dira datu-iturri nagusiak. UDALGIDAKo datuak ere erabili ditugu.

Datu horiez gain, Udalak berak dituenak ere erabili ditugu: udalerriko errolda datuak, inmigrazioari buruzkoak, eskolatzeko datuak, eta Udalak egindako 2016ko kale erabilera neurketen datuak bereziki.

Egoera soziodemografikoa, hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza eta kale erabilera izan dira aztertutako arloak.

Bestalde, hainbat azterketa eta parte-hartze prozesutatik lortutako informazioa ere aztertu dugu (Hegoaldeko ELE, Zarauzko Euskaltzaleen Topagunearen parte-hartze prozesua eta D ereduko Kirolari buruzko azterketa).

– **Ondorio nagusiak eta lehentasunezko** arloak aurreko atalean egindako irakurketaren ondorioak dira. Datuek erakutsiko digute zertan eragin behar dugun, eta lehentasunezko arloak identifikatzera eramango gaituzte.

– Hirugarren atala plana bera izango da, hots, EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN PLAN ESTRATEGIKOA. 16 eragin-esparru izango ditu planak. Udalak datozen urteetan 16 esparru horietan aurrera eramango dituen ekintzak zerrendatuko dira, beti ere adostutako lehentasunetan oinarrituta.

“EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA 2018-2022” jendaurrean jarri da 2018ko azaroaren 16tik 30era (biak barne).

Webgunean jartzeaz gain, hainbat herritarri bidali zaie (100dik gora), gaiarekiko interesa azaldu izan dutelako.

Guztira 4 ekarpen jaso dira, guztiak plana osatzera bideratuak.

Herritarren Informazio Batordeak Euskara Departamentuak egindako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

#### ERABAKI DU

**Lehenengoa.**- “ZARAUZKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA 2018-2022” onartzea, Herritarren Arloko Informazio Batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

**Bigarrena.**- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari onarpen honen berri ematea.

#### 6.- ESKARI-GALDERAK.

Gai-zerrendako puntu honetan, EH BILDU udal taldeak idatziz egindako galdera (erregistro-sarreran 16103 zk.) izan dute hizpide: Talaimendiko Amezti baserriaren eraikin berriari buruzkoa, hain zuzen.

Egindako galderari erantzuna eman dio alkate jaunak.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko zortziak laurden gutxitan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.